

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 1,7 milioi euroko laguntza emango dio txikizkako merkataritzari 2013an

Enpresa-inbertsioa laguntzeko bi deialdi berreskuratu dira

Miércoles, 10 de abril de 2013

Nafarroako Gobernuak guztira 1.714.835 euro erabiliko du txikizkako merkataritzako sektorea laguntzeko neurrietarako. Kopuru horretatik, guztira 1,15 milioi bost laguntza-deialdiren hornidura ekonomikoari dagokio.

Linea horietako bi berreskuratu dira (ez ziren 2012an deitu) eta, berrikuntza moduan, eskaerak aurkezten diren ordenaren arabera ebatziko dira (banakako ebaluazio-erregimena). Funtzionamenduan dauden enpresen lehiakortasuna hobetzeko diru-laguntzak dira, alde batetik, eta merkatarik ekintzaileei laguntza emateko, bestetik. 470.000 eta 69.170 euroko aurrekontua izango dute, hurrenez hurren.

Bi kasuetan, itzuli beharrik gabeko laguntzak dira merkataritza-establezimenduetan obra, berrikuntza eta egokitzapena egiteko, negozioarako beharrezko aktibo finkoak bereganatzeko edo informazio eta komunikazioaren teknologia ekipoen (IKT) inbertsioak egiteko.

Gainera, merkatarik ekintzaileentzako deialdiak ere beharrezko prestakuntza barnean hartzen du enpresa-jarduera garatzeko edo sozietatea osatzeko notario- edo eskritura-gastuetarako.

Bestalde, honako diru-laguntzen deialdi hauei deialdiei eutsiko zaie: merkataritza-kolektiboak sustatu eta kudeatzeko programa (579.270 euro); merkataritza-sektorearen prestakuntza (25.931 euro); eta lehiakortasuna berrikuntzaren bidez (7.000 euro).

Publizitate-kanpaina eta betebeharrak

Gainera, Nafarroako Gobernuak guztira 99.000 euro inbertituko du publizitate-kanpaina batean, txikizkako sektorearen irudia sendotzeko helburuarekin, merkatariek zer funtzio sozial duten aitortzeko eta negozio horienganako leialtasuna hobetzeko.

Aipatu beharra dago Foru Gobernuak beste 464.464 euro baimendu dituela 2012ko ekitalditik sortutako betebeharrak erantzuteko, establezimenduak modernizatzeko deialdiak, esaterako.

Eskualdeko BPGaren % 8,1

Laguntzeko neurri horiek guztiak Nafarroako Txikizkako Merkataritzara Sustatzeko III. Planean (2012-2015) finkatuta daude, Nafarroako Gobernuak 2012ko ekainean onartutakoa.

Txikizkako merkataritza-sektorea bereziki kaltetua izan da 2008tik

kontsumoak eta salmenta-zifrek izan duten beherakada sistematikoaren ondorioz, Estatistikako Institutu Nazionalak landutako [Txikizkako Merkataritza Indizearen](#) datuek adierazten dutenez, eta laguntza bikaina sektoreko enplegu-mailari eusteko.

Nafarroako txikizkako merkataritza Nafarroako BPG guztiaren % 8,1 da, 35.000 pertsona ingururi ematen die lana, hau da, enplegu guztiaren % 12,4 eta zerbitzuetako lanpostuen % 28. 6.110 merkataritza-enpresa daude, 7.350 establezimendu sortzen dituztenak. "Merkataritza eta konponketa" sektoreak sortutako BEG 1.568 milioi eurokoa da.